

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Prest dira urnietarrak, jaietan murgiltzeko

Hamaika ekitaldi izango da asteazkenean hasi eta astelehen iluntzera arte / 5-11

AIURRI

"Mugitu Andoain"

Askotariko jarduera fisikoan trebatzeko aukera izan zen aurreko larunbatean / 2-3

Oianumeko bertso-afaria gogoangarria izan zen hara hurbildu ziren bertsozaleentzat / 5

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren kanporaketa, igande honetan, Bastero Kulturgunean / 15

FINALA
IRAILAK 28 16:30EAN
GALARRETA JAIALAI (HERNANI)

01. PARTIDA / 3 SETERA
ALDABE · APEZETXEA VS GOIKOETXEA V · MARTIRENA

02. PARTIDA / 30 TANTORA
ANSA II VS BARRENETXEA IV

03. PARTIDA / 3 SETERA
EZKURRA II · ZUBIRI VS JABALERA · AZPIROZ



OROA MENDI ERREMONTEA BIZIRIK K 65 SUKIA PABELERA CUPUZCOARA LOZ DE DUMPIA, S.A. HAIN GIPUZKOA Orona AIURRI



Leitzaran aldera abiatu ziren txirrindulariak, Andoaingo Txirrindulari Eskolakoen gidaritzapean. **AIURRI**

Arian, arian Andoain martxan

Jarduera fisikoa egitearen garrantziaz jabetzeko egun aproposa izan zen aurreko larunbatekoa. Andoaingo Udalarekin batera egitarau osoa betetzeko elkarlanean aritu ziren herriko hamabost kirol elkarte

Erredakzioa ANDOAIN

Autorik Gabeko Munduko Eguna ospatu ohi da irailaren 22an, eta aldarrikapen horrek bila-kaera izan du Andoainen. Jarduera fisikoen aldeko ospakizuna da, "Mugitu Andoain" izenburupean antolatzen dena. Oinez, bizikleta gainean, kalean nahiz kirol instalakuntzatan... Dozenaka herrikide egitarauan iragarritako jardueretan murgildu ziren aurreko larunbatean. Lagun askoren boluntariora la-

nari esker egin ahal izan zen. Egitarau osoa osatzeko lan asko egin behar baita.

Elkarlana

Andoaingo Udalarekin batera elkarlanean aritu ziren herriko hamabost kirol elkarte: Ibili Andoain, Euskalduna Mendigoizale Taldea, Euskalduna Futbol Elkartea, Leizaran Eskubaloia, Ganbara Saskibaloia taldea, Txirrindandoain, Soinketa +65 urteko taldea, Andoaingo Txirrin-

dulari Eskola, Oskarbi taldea, Gazteleku Pelota Elkartea, Ontza Elkartea, Gipuzkoako Kirol Ego- kituen Federazioa, Zumeatarra Kirol Taldea, Kabutoken Kenpo- Kai kluba eta Real Sociedad Fundazioa. Jarduera fisikoa egitearen garrantziaz ohartarazteko eguna izan zen eta, bide batez, gauza berriekin probatzeko gonbita. Azken urteotan ekimenak izan duen garapena ikusita, bistakoa da "Mugitu Andoain" indartzen ari dela, urtez urte.



Ontza elkarteko kideak eta lagunak, Leitzaran ibaian. **AIURRI**



Saskibaloian, eskubaloian eta futbolean aritu ziren Allurralde kiroldegian. **AIURRI**



Nordic Walking ikastaroari ekin aurretik taldeko agazkia atera zuten Goikoplazan. **AIURRI**



Gimnasia erritmikoa, Oskarbiren eskutik. **AIURRI**



Ibili Andoain taldeko kideek irteera egin zuten udalerrian barrena. Asteazken honetan ekin diote asteroko hitzorduari. AIURRI



Txirrindandoain taldeko kideak. AIURRI



Hamaiketakoak antolatu zuten hainbat lagunek Zumea plazan. AIURRI



Mendizaletasuna sustatzea izan zen eguneko helburuetakoa. AIURRI



Gimnasiako kideak, saioa amaitu ostean. AIURRI



Aletismoan trebatzeko saioa Ubitarten, Zumeatarraren eskutik. AIURRI



Palan aritu ziren lagunak, Gaztelekuk antolatutako saioan. AIURRI

Gurutze lantzi, gogoan

Egiari Zor elkarteko Pilar Garaialdek aitormen ofiziala eskatu zuen Gurutze lantzirentzat, haren heriotzaren 31. urteurrenean: "Ezingo genuke beste emaitzarik ulertu Gurutzeren kasurako"

Xabier Lasa URNIETA

Hogeita hamaika urte bete dira Gurutze lantzi Guardia Zibilaren kuartel batean hil zenetik. Ge-roztik, urtero-urtero ekitaldia egiten da San Juan plazan. Egia, justizia eta erreparazioa nahi dute etxekoek eta lagunak. Astearte arratsaldeko ekitaldia Nagore Brelek aurkeztu zuen, eta Unai Gaztelumendi bertso-lariak, Nekane Orkaizagirre dantzariak, Eneko Sierra musikariak eta Irati Zinkunegi eta Eider Manterola txalapartariak hartu zuten parte. Xabier Olanar EH Bilduko zinegotziak ere hartu zuen hitza.

Bestalde, Pilar Garaialde Egiari Zor elkarteko kideak aitortza ofiziala eskatu zuen lantzirentzat, haren heriotzaren 31. urteurrenean: "Ezingo genuke beste emaitzarik ulertu Gurutzeren kasurako. Izan ere, harekin batera, Guardia Zibilaren operazio hartan beste 19 lagun atxilotu zituzten; denek salatu zituzten



Nekane Orkaizagirre dantzaria, Gurutze lantziren irudiaren aurrean. AIURRI

torturak, denek. Batzuk, berriki, torturaren biktima gisa aitortu dituzte ofizialki. Inork imajina dezake Gurutzeri beste tratatu bat eman ziotela, gainerako atxilotuek jaso zutenetik bereizia? Argi dugu besteek jasa zuten kalbario bera jasan zuela".

Osatu berri den Eusko Jaur-laritzari eskaera luzatu zion: "espero dugu honakoa aitortza-

ren legegintzaldia izatea. Premiazkoa da hainbat gai martxan jartzea, hala nola 12/2016 aitortza-legearen eskaera berriak izapidetzeko, epe berri bat zabaltea, Legea bera garatzeari ekitea eta erreparazio neurriak parekatzea, eta, Estatuaren indarkeriaren biktimen egunaren oroitzapena urteko egutegian finkatzea".

IRITZIA

JON ANDER UBEDA ANDOAIN

Elkarbizitza

Andoainen, hitzorduz hitzordu, eraikiz eta elikatuz goaz elkarbizitza. Adibideak ez dira gutxi, kontrara, askotxo ditugu eskura. Aipa ditzagun batzuk, aurreko asteburuak:

Leizaran eskubalo taldearen elastikoa jantzita dozenaka haur eta gazte, ostiral iluntzean. Talde izaera indartzeko aurkezpen-ekitaldi bikaina antolatu zuten Allurralde kiroldegian.

Ehundik gora lagun Oianumen, bertsoaz gozaten, ostiral gauean. Ez ziren gutxi izan hara hurbildutako andoaindarrak.

Larunbatean, goizean goiz jaiki eta Lizarrarantz abiatu ziren Euskalduna futbol taldeko neskek. Egun osoko irteeran, taldekideen arteko giroa sustatzea: hori zen bidaiaren helburu nagusia.

Askotariko jendea Goikoplazan, goiza aurrera joan ahala. Mugitu Andoain jardunaldian iragarritako hainbat hitzorduren artean, elkarren artean zerikusi gutxi zuten Nordic Walking-en

trebatzeko ikastaroan elkartu zirenak.

Euskaldunako Gorengo Mailako taldearen denboraldiko lehen partida, larunbat arratsaldean. klubarentzat garrantzi handikoak izandako hiru kide txalo zaparrada jaso zuten.

Merkatarien eskaintza berezia, asteburuan. Eta andoaindarrak produktu interesgarrien peskizan. Kaleak, merkatu plaza zalapartatsua bilakatuta.

Lagunen eta arrantzaleen artean arrasto sakona utzi zuen herrikidearen aldeko omenaldi-ekitaldia, igande goizean Unanibin.

Lerrootan azaldutakoa asteburu bateko hitzorduen aukeraketa da, Andoaingo gizarte bizitza oparoa islatzeko baliagarria.

Edukiontzia- eta ibilgailu-erreketaekin ernegatuta daudenei arrazoirik ez zaie falta. Oro ez da urre, baina ez dezala gertaera ilun batek elkarbizitza aberatsa estali.

JASOTA BEZALA

IKASLE OHI TALDEA ANDOAIN

"EGB"ko ikasleen bilkura, Gaztañagan

"Aurreko larunbatean 50 lagun elkartu ginen Gaztañaga sagardotegian. 1976-1977. ikasturtean Oinarrizko Hezkuntza Orokorra (EGB) ikasten aritu ginen ikasleak ginen guztiak. Giro polita sortu zen eta bazkarira Londresetik, Cordobatik eta Toledotik etorri ziren".



BELEN SANTANO



Kupelak atzean eta dozenaka ikusle aurrean, bertso-saio aparta egin zuten Enbeitak eta Colinak, Agirrerren laguntzarekin. AIURRI

Bertso-afari gogoangarria

Amaia Agirre gai-jartzailearen esanetara, saio bikaina egin zuten Onintza Enbeitak eta Sustrai Colinak, Oianume sagardotegian. 150 lagun elkartu ziren, txotxaren bueltan, saio umoretsuaz gozatzeko. Hainbat pasarte Aiurri.eus gunean daude ikusgai

Erredakzioa URNIETA

Bertsoek bota dute Sanmielen txupinazoa. Ohiturak aginduta 150 bat pertsona bildu ziren, joan den ostiral iluntzean, Oianume sagardotegian, festen bezperako bertso-afariaz gozatzeko asmoz. Amaia Agirre gai-jartzailearen gidaritzapean aritu ziren kantuan Onintza Enbeita eta Sustrai Colina bertsolariak. Bada, umorearen bidetik jota, txalo zaparrada eta algara artean hartu zituzten urnietarrek bi protagonisten errimak.

Berezia da hitzordua, ziurrenik, urte osoan, adin-tarte zabaleko jendea biltzen duen ekimen bakarrenetarikoa izango baita herrian. Are gehiago, bertsozale amorratuak ez diren urnietarren arreta bereganatzea ere lortu zuten afaldu osteko errimek.

Txorizoa, kroketak, bakailao-tortilla, txuleta... Tripa bapobapo, eta eztarria sagardoz gozobustita, belarri-finez entzun zituzten herritarrek Colinak eta Enbeitak esateko zituztenak.

Errimen jolasean

Baserri-giroa, Merkadonako ananak, gurasotasuna, Urnietako gasolindegia erraldoia, kamioiak, Aiurrik Urnietako Udalaren partetik jasotako dirumurrizketa, Urnietako txosnagunea... Gai guztiei umore-zukua ateratzen trebeak dira biak albiak. Bada horrez gain, gainera, jolasetik asko izan zuen saioak, izan ere, parte-hartzaile zuzen bihurtu zituen Agirrek sagardotegira bertaratutako entzuleak. Maddi Ruiz, Josu Sarasua eta Eujen Garmendia herrikideei bina bertso bota zizkieten bertsolariak, bai eta Andoni Oiar-

tzabali ere. Aspilla baserriko saskiaren irabazlea izan zen azken hori eta bertsoz eman zuen Enbeitak irabazlearen berri, Colinak saskien produktuen gaineko azalpena kantuan bota ondoren:

Zenbakian magia niretzat gordeta busti egin behar naiz kolpeka-kolpeka buruan eman eta horrenbeste buelta nork dauka "26" dion papeleta erditzeko egun hori jarri zidaten ta.

Horrela, saioarekin nahikoa ez eta gaua luzatzeko aukera ere izan zuten parrandazaleek. Prest dira, horrenbestez, urnietarrak, irailaren amaierak herrian ezinbestean dakarren ospakizun-giroari eusteko. Beste behin ere, hutsik ez, Sanmielen preludea bihurtu den bertso-afariak.

Oianumen, Aiurrik antolatuta



Colina, Enbeita eta Agirre. Beren aurrean, dozenaka bertsozale. AIURRI

Ehun eta berrogeita hamar lagun Urnietatik, Andoaindik eta beste hainbat tokitatik hurbildutako 150 lagun elkartu ziren Oianume sagardotegian. Tripak bapo beteta, adi-adi jarraitu zuten bertsolarien jarduna.



Zerbitzariak bertsozaleen aitortza jaso zuten. AIURRI

Txalo zaparrada Taldeko argazkia egiten hastearekin batera, txaloka hasi ziren bertso-afarira hurbildutakoak. Oianumeko lantaldeak emandako zerbitzu onari eskertza izan zen. Pozarren ziren antolatzaleak eta bertsozaleak Oianumekoekin. Merezitako txaloak.



Andoni Oiarzabal. AIURRI

Aspilla baserriko saskia

Aiurrizaleek eta, bereziki, Egunean Behin lehiaketako partaideek ondotxo dakite Aspilla baserriko saskia bikaina dela. Poltsa hartu eta duen pisuaz jabetzea besterik ez dago! Behin sariari begira jarrita, bete-beteta dago saskia: tomateak, sagardoa, gazta, dilistak, arroza... Afalostean euskaltzaleen alde egindako zozketan 26. zenbakia izan zen sariduna. Sustrai Colinak eta Onintza Enbeitak eman zuten sariaren eta saridunaren berri. Sarituak etxera eramane zuten saskia, baina aurretik bertsolariak botatako lau bertso entzun zituen. Urduri eta pozarren zen irabazlea.

"Denon artean kantatzeko bertso-sorta aukeratu dugu"

BEÑAT GAZTELUMENDI BERTSOLARIA

Manttale elkarteak kantu-bazkaria antolatu du eta bertan Gaztelumendi anaiak izango dira gonbidatu bereziak. Haiekin batera ariko da Beñat Antxustegi musikaria

Jon Ander Ubeda URNIETA

"Bertso zaharrak eta berriak Urnietari jarriak" izenburupean, Beñat eta Unai Gaztelumendi anaiak kantuan ariko dira Manttale euskaltzaleen elkarteak antolatu duen kantu-bazkarian. Igandean izango da Txosnagunean, eguerdiko 14:00tan hasita. San Miel eguneko hitzordua iritsi aurretik, Unai Gaztelumendik diseinatu duen afitxak zeresana eman du. Argazkimuntaia da, zeinean Txirrita eta Saiburu bertsolariak azaltzen diren argazki ezagunetan Beñat eta Unairen aurpegiak txertatu dituen. Bikaina da muntaia.

Zer da igandean bertsozaleak topatuko duena? Zein erreperitorio prestatu duzue?

Iganderako pentsatu duguna ez da Unai eta bion emanaldi bat, biak ere ez garelako bereziki kantari luzituak. Buruan duguna da denon artean kantatzeko bertso-sorta batzuk aukeratzea, eta aitzakia on bat bazkaloste



Beñat Gaztelumendi Maialen Lujanbiorekin batera, artxiboko irudian. AIURRI

atsegin bat pasatzeko. Oinarrian, urnietarrek jarritako bertsoak edo Urnietarekin edo Urnietari jarritakoak izango dira. Sorpresaren bat ere emateko asmoa badaukagu. Hori aurretik ez

dugu iragarriko. Finean, herriari eta herritik jarritako bertsoak izango dira abestuko ditugunak. **Ezin esan kartela bitxia ez denik. Zein izan zen zure lehen inpresioa hura ikustean?**

Anaia artista izateak horrelako gauzak dauzka, bat-batean horrelako sorpresak hartzen direla eta, egia esan, susto txikia hartu nuen neure burua Txirritaren gorputzean ikusita. Eta, tira, ez naiz sare sozialetan asko ibiltzen, baina jakin dut kartelak zeresana eman duela. Jende dezentek galdetu digu ea zer egiteko asmotan gabiltzan. Beraz, kartelak bere lehendabiziko funtzioa ondo bete du. Gero, batzuetan, espektatibak sortzen dira eta aurrikuspenak ez bete-zearen kezka ere izaten da. Baina, beno, hasieran izan nuen susto txiki hori eta, aldi berean, kartelak bere funtzioa bete duela ikusita, argi dago kartela bera jolasaren parte izango dela.

Akaso jendeak pentsatuko du mozorrotuko zaretela. Hala izango da? Ez, ez. Ez dugu mozorrotzeko inongo asmorik. Garen bezala azalduko gara edo behintzat jendaurrean ateratzen garenean bezala, garenetik ahal den gertuen dagoen itxurarekin agertuko gara. Sorpresak bertsotan eta testuetan egongo dira, ez hainbeste gure itxuran. **Ez ohiko saioak motibagarriak dira zuentzat?**

Horrelako saioak motibagarriak dira, bai. Aparteko lan bat eskatzen dutelako betiko eremutik atera eta bestelako bertsokeran aritzera behartuko gaituelako. Kasu honetan, adibidez, urnietarren bertsotan arakatzen ibili gara, edo Urnietatik jarritako

bertsotan. Bilaketa horretan perla asko aurki daitezke. Denenak ez dira eramateko modukoak izango, baina bilaketa lana polita izaten ari da guretzat. Batez ere, bertsolari baino gehiago bertsozale garelako eta betiere horrelako perla aurkitzea pizgarri direlako. Are gehiago, udazkena txapelketa garaia izanik, bertsokera karratuetara lerratuta egoten gara. Bat-batean hortik atera eta bestelako zerbait asmatzea... Egia esan, arnasaldi ederra da guretzat. Tira, normalean baino urduriago jarriko gara dakigunetik harago doan zerbait egin behar denean. Horregatik guztiagatik motibagarria da Urnietako saioa. Prestaketa lanetan, behintzat, gustura ari gara. Ia igandekoa entseguetan sentitutakoa bezain atsegina izaten den.

"HERRIARI ETA HERRITIK JARRITAKO BERTSOAK IZANGO DIRA IGANDEAN ABESTUKO DITUGUNAK"

"BAZKALOSTE ATSEGIN BAT PASATZEKO AITZAKIA ON BAT DA IGANDEKOA"



AIURRI

Kalejira ostiralean, igandean eta astelehenean

Erraldioen eta buruhandien konpartsa gozamina izan ohi da haur eta gaztetxoentzat. Ostiral honetan, txupinazoari ekin aurretik, kalez kale ibiliko dira. Arratsaldeko 18:00tan abiatuko dira Plazido Muxika


plazatik, San Juan plazaino hurbiltzeko. Beste bi irteera gehiago egingo dituzte aurtengo jaietan: igandean, San Miguel egunean (18:00); eta astelehenean, haurren egunean (17:00).



BASTERO

"Mute" ikuskizuna, igandean

"Mutazioa konstante bat da. Ez daitezela zorroak bakarrik mutatu. Alda ditzagun egiturak eta baita gu ere, pertsonak, aurrera egiten jarraitzeko, urrunago iristeko, gorago iristeko". Hori dio Cia orain bi konpainiaren sinopsiak. Igande arratsaldean, Urnietako jaietan izango dira (17:00).



(Elizako ordularian ez, baina) 19:30ak direnean Miela agertuko da. AIURRI

Mielaren jaitsiera, ostiral arratsaldean

Ostegunean jai-giroan murgilduko dira festazale asko, patata-tortilla lehiaketan

Erredakzioa URNIETA

Txosnagunean, ostegun iluntzean, lehiaketa ezaguna eta kontzertuak iragarrita daude. Jaiak, ofizialki, ostiral arratsaldean abiatuko dira Mielaren jaitsierarekin eta txupinazoarekin.



Jendez beteko da plaza. AIURRI



AIURRI

Proposamen berriak eta gazteak, aurtengo jaietan

Aurtengo jaietan zuzenean ariko diren taldeen artean, Beterri-Buruntzako musikariak oholtza gainean ikusiko ditugu. Goiko argazkian Olgetan musika taldeko kideak ageri dira. Kide gehienek Andoaingo Aita Larramendi ikastolan ezagutu zuten elkar. Aurten, Andoaingo San

Juan jaietan emanaldia egin zuten eta jendetza erakarri zuten: erromeria eta plaza doinuekin ikuskizun bizia eman zuten. Beheko argazkikoak Arrixku taldekoak dira. Andoaingo Santa Krutz jaietan, esaterako, rock kutsuko bertsoak egin zituzten.



AIURRI



Udalak konpromiso argia erakutsi du eraso matxistei aurre egiteko. AIURRI

Sanmielak jai parekide eta berdinzaleak izango dira

Ostiralean eta larunbatean informazio-puntua eta arreta-gunea jarriko dituzte Gaztelekuan

Erredakzioa URNIETA

Aurtengo jaiak iragartzeko prentsaurrekoan, Ainhoa Ostolaza Berdintasun zinetotziak adierazi zuen Urnietako Udalak "jai parekide eta berdinzaleak sustatzeko konpromisoa" berretsi nahi zuela: "Ez da inolako eraso matxistarik edo arrazistarik onartuko, eta horien aurrean irmotasunez erantzungo da beharrezko neurriak hartuz".

Hala, informazio-puntua eta arreta-gunea ipiniko dira lehen asteburuan. Ondorengo egun eta orduetan martxan izango da:

Irailak 27, ostirala:
Gaztelekua 23:00-04:00.
Irailak 28, larunbata:
Gaztelekua 23:00-04:00.

MUAZPI

Harategia

- Bertako haragia
- Jaki prestatuak
- Delikatessen
- Ardotegia

Gora Urnietak!

Errekalde, 14. Urnieta
943 008 304 / 665 73 78 71
muazpi@gmail.com

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



ORAIN GIPUZKOA

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Sanmielak webgunean

Argazkiak eta bideoak
KANAL BEREZIA

aiurri.eus



SANMIELAK URNIETAN

OSTEGUNA 26

17:00 Bingoa Elkarteen Etxean.

19:00 Mendi Tour film Saroben.

20:30 Tortilla lehiaketa txosnagunean.

23:00 DJak txosnagunean.

OSTIRALA 27

16:30 Gazte Ginkana gazteentzat, Zubitxo plazan.

18:00 Zapi banaketa haur jaioberriei, Kontzejupean.

18:00 Erraldoi eta buruhandien kalejira, Plazido Muxika plazatik plazara.

18:30 Jolasak txosnagunean.

19:30 Mielaren jaitsiera. Txupinazoa Habitantes de Innsmouth rol jokoan elkartearen eskutik.

20:00 Zuttik elektrotzaranga, plazatik abiatuta.

20:30 Afaría txosnagunean, bakoitzak berea eramanda.

23:00 Kontzertuak: Steady Rockets Streetwise, Mutiko.

23:30 La Otra Oreja de Van Gogh bertsoak egiten dituen taldea San Juan plazan.

LARUNBATA 28

10:00 Diana txistulariekin, Urnietako eta inguruko txistulariekin batera.

10:00 Kontzejupeko txapelketako finalak.

11:00-13:00 2-12 urte arteko bizikleta festa Idiazabal kalean, Andoingo Txirindulari Eskoaren eskutik.

12:00 Hamaiketako Elkarteen Etxean.

12:00 Olinpiar Jokoen Gymkhana San Juan plazan, 8 urtekoentzat.

12:00 Pasai Txaranga San Joan plazatik abiatuko da.

14:00 Paella-jatea plazan.

14:30 Emakume kuadrillen bazkaria Oianumen.

14:30 Herri bazkaria eta bingo musikatu Txosnagunean.

16:15 Pasai Txaranga San Joan plazatik abiatuko da.

18:00 Malatxo Txarangaren irteera txosnagunetik.



HAINBAT BAZKARI LARUNBAT EGUERDIAN: Txosnagunean herri-bazkaria eta bingo musikatu, San Juan plazan paella-jatea eta Oianumen emakumezkoen kuadrillaren bazkaria. Eguerdian hasita, beraz, jaiaren murgiltzeko aukerarik ez da faltako. AIURRI

18:00 Urdanborren lehen irteera Kiroldegitik.

23:00 Kontzertuak: Arrixku eta Olgetan Txosnagunean.

23:30 Kontzertua: Star Ways taldea San Juan plazan.

00:00 Urdanborren irteera Elkarteen Etxetik.

IGANDEA 29

09:30 Diana Txanbolin txistulari bandaren eskutik.

10:30 Juanma Zarranz salestar ikastetxeari eta Bosko Anitz aisialdi taldeko kideari udal omenaldia, udaletxeko pleno aretoan.

11:30 Meza Nagusia eta Alkate-Soinua San Miguel elizan.

BERTSO - KANTU BAZKARIA
BERTSO ZAHARRAK ETA BERRIAK
URNIETARI JARRIAK

2024KO
IRAILAK 29
IGANDEA
14:00 TXOSNAGUNEAN

BENAT ETA UNAI GAZTE LUMENDI
BENAT ANTJUSTEGI MUSIKARIAREKIN

BAZKARIA 30€ BAZKARI-TXARTELEN ERRESERBA BIKAIN (9KN) KAFETEGIAN & MATXO TABERNA IRAILAK 24RA ARTE

MANTALE KULTUR ELKARTEA  



MUSIKA: Musika eskaintza zabala izango da aukeran, Sanmieletan. Argazkian, Andoainen sorburua duen Disko-Nemux.

11:40 Hour danborrada, Magaletik abiatuta.

12:30 Txanbolinen eta Egaperen kontzertua San Juan plazan.

14:00 Bertso-kantu bazkaria, Manttaiek antolatuta.

Bertsolariak: Gaztelumendi anaiak. Urnietarren bertso musikatuak eta bat batekoak. Musikariak lagunduta. Tikitak 2KN-n eta Matxon salgai irailaren 24 arte.

14:00 Nagusien bazkaria Oianumen.

17:00 Herri-kirolak Egape Ikastolan: Harrijasotzen, Udane Ostolaza; aizkoran, Xabat Olaizola eta Julen Gabirondo; egur handia mozten, Nerea Arruti.

17:00 "Mute" kale antzerkia San Juan plazan.

18:00 Buruhandi eta erraldioen kalejira, San Juan plazatik abiatu eta Idiazabal kalerantz joango dira.

19:30 Kontzertua: Goxua'n Salsa San Juan plazan.

ASTELEHENA 30

10:00 Diana.

10:30 Alkate Txikien izendapena eta Belauntxingoa.

11:00-13:00 Hour jolasak, igerilekuko belardian.

11:00-13:30 Surf Taula eta Ekortzeko makina mekanikoa 10 urtetik gorakoentzat, Egape Ikastolan.

13:30 Holi festa Egape Ikastolan.

16:00-18:00 Hour jolasak, igerilekuko belardian.

17:00 Buruhandi eta erraldioen kalejira, plazatik Plaxido Muxikara.

18:30 Xaibor diskofesta San Juan plazan.

20:30 Mielari agurra, zezen-suzkoa eta azken traka.

LARUNBATA 5

09:00-13:00 Urnietako Auto Klasikoen VI. Ibilaldia, Idiazabal kalean.

11:00 Bertso-kalejira eta irrintziak, Bagararen eskutik.

13:00 Irintzi erakustaldia plazan, Bagararen eskutik.

18:00 Dantza emanaldia, Egape Dantza Taldeak antolatua.

18:00 Esku pilota jaialdia Udal Pilotalekuan.

18:00 Kontzertua: Agirre Taldea Elkartearen Etxean.

23:00 Dupla San Juan plazan.

00:30 Disko-Nemux Idiazabal kalean.

IGANDEA 6

12:00 Meza Nagusia.

12:00 Munduko ardoen dastaketa Kontzejupean.

12:30 Dantza emanaldia, Egape Dantza Taldeak antolatua.

18:00 Asma ezazu... AEK-ren erronka San Juan plazan.

18:00-20:30 Txekor jatea eta sagardo dastaketa plazan.

18:00 Erromeria Iratzar taldearekin, plazan.

18:30 Willy Etxeberria zesta punta jaialdia Udal Pilotalekuan.

18:30 Martin Mujika Erremonte Jaialdia Udal Pilotalekuan.

URNIETAKO UDALAK
JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE
URNIETAR GUZTIEI
GOZA DEZAGUN ERRESPETUZ

URNIETA, 2024ko SANMIELAK
 MARTZULO

Urnietako udala



Mutiko taldeko kideak eta lagunak. JIMMYJAZZ

Txosnaguneko egitaraua, asteazkenean hasita

Txikitako ipuinetan oinarrituriko gaua izango da osteguneko, tortilla-lehiaketarekin batera

Erredakzioa URNIETA

Asteazkena, osteguna, ostirala, larunbata eta igandea. Bost eguneko egitarau biribila antolatu du aurtengo Sanmieletan Urnietako Txosna Batzordeak, hain justu ere, Poxta Zahar elkarteak, Mugimendu Sozialistak, Jardunek eta UKE Eskubaloiak.

Txupinazo alternatiboarekin eta herriko produktuen dastaketarekin ekin zioten jai-giroari asteazken iluntzean. Hala, haurtzaroko ipuinetako pertsonaiez beteko da txosnagunea osteguneko, patata-tortilla lehiaketarekin batera. Urtero, gertuko artistak igo ohi dira oholtzara egun horretan. Bada, aurten, musika elektronikoa hartuko du gaua, hiru DJ izango baitira taularen gainean: Karlos Salvatrutxa (teknopunk session), DJ Revu eta DJ Achucarro.

Astia emango die ordu luzez festa egiten dutenei, ostiralean, atsedean hartzeko, arratsaldeko

18:00tan hasiko baitira irailaren 27ko hitzorduak txosnaguneko; jolasen ondoren, oilasko-jateaz gozatuko dute herritarrek. Gaueko 23:00tan, berriz, musikaren txanda izango da: Mutiko, Steady Rockets, Streetwise eta DJ Gio artistek girotuko dute gaua.

Eguneko parrandari eutsiko diote, berriz, larunbatean, goizean goizetik kalera ateratzeko aitzakia jarri baitu Txosna Batzordeak: 12:00tan poteoa izango da, Matxo tabernatik abiatuta. Jarraian, urteroko herri bazkari jendetsua egongo da, bingo musikatuarekin batera. Malatxo txarangaren ostean, Arrixku, Olgetan erromeria eta DJ Xala musikariek itxiko dute San Miel jaian egun handiaren egitaraua.

Festa-giroa egun bat gehiago luzatu nahian, "elizako galaz" jantzita aterako dira txosneroak kalera igandean, arratsaldeko bingoaz eta kontzertuez gozatzeko: Bombadil eta Lilith Selektah.



Iruñerriko taldea da Streetwease. STREETWEASE

SAMIELEK! 2024

Asteazkena 25

10:00 Pre-txupinazoa

10:30 Herriko produktuen dastaketa

Osteguna 26

Gau tematikoa: Txikitako Ipuinak

17:00 Txoznen irekiera

Psikokilerren hasiera

20:00 Tortilla lehiaketa - Tiket gabe

23:00 Kontzertuak

KARLOS
SALVATRUTXA
(TEKNO PUNK SESSION)
DJ REVU
DJ ACHUCARRO

Ostirala 27

10:00 Jolasak txosnagunekoan

20:30 Afarria txosnagunekoan-Oilasko jatea (9€)

23:00 Kontzertuak

MUTIKO
STEADY ROCKETS
STREETWISE
DJ GIO

Larunbata 28

12:00 Poteoa Matxo tabernatik

14:30 Herribazkaria (15€)
Bingo musikatua

19:00 Malatxo txaranga txoznatik

23:00 Kontzertuak

ARRIXKU
OLGETAN ERROMERIA
DJ XALA

Igandea 29

Meza eguna - Ekarri zure elizako galak

10:00 Bingoa

19:00 Kontzertuak

BOMBADIL
LILITH SELEKTAH

Tiketak salgai frontoi
eta matxo tabernan!





AIURRI

Kontzejupeko finalak, larunbat goizean

Astelehen arratsaldean, esku-pilota txapelketako final aurrekoak jokatu zituzten benjamin eta alebin mailetakoko pilotariak. Ikusmira piztu ohi du UKEK antolatutako Kontzejupeko txapelketak, herriko gaztetxoaren artean. Finalak larunbatean izango dira, goizeko 10:00etan hasita.



AIURRI

Mendi Film Tourra Saroben, ostegun honetan

Arratsaldeko 19:00etan ikus-entzunezkoak proiektatuko dituzte, Saroben. Bost ekoizpen eskainiko dira: 'Canto Rodado', Ekhi Alde zuzendari hernaniarrarena; 'Zerbait Aldatu da', Mikel Sarasola kayaker donostiar ezagunarena; 'La Gara', Julen Elorza zuzendari arrasatearrarena; 'Oinez', Bira ekoizpen-etxekoa; eta, azkenik, 'Captains On el Cap' 54 minutuko pelikula. Seb Berthe eskalatzailer belgikarrak The Dawn Wall bidea egitea du helburu, Yosemiteko El Capitan horman (Kalifornia, AEB).



'CAPTAINS ON EL CAP'



Tradizio handia du txapelketak, Urnietan. AIURRI

Sanmielen aurreko txapelketa, Santa Kruz elkartearen eskutik

Txema Fernandez izan da garaile, 35 birlarekin. Aldiz, Benito Loitegi izan da herriko irabazlea, 34 birlarekin

Erredakzioa URNIETA

Sanmieletako birla-txapelketaren edizio berria antolatu zuen Santa Kruz elkarteak, aurreko larunbat goizean. Orotara, 38 lagunek hartu zuten parte he-

rriko bolatokian antolatutako hitzorduan: Txema Fernandez izan zen garaile, 35 birlarekin. Bestalde, Benito Loitegi izan zen lehen urnietarra, 34 birlarekin.



Txema Fernandez izan zen onena. Benito Loitegi, lehen urnietarra. AIURRI



Inguruko herrietako jendea ere gerturatu zen parte hartzera. AIURRI



Bikote mordoxkak hartu zuen parte padel-txapelketan. AIURRI

Kirolak eta elkartasunak bat egin zuten Urnietan

Joan den larunbatean padel-txapelketa eta paella-jate solidarioa izan ziren, London hizkuntza-akademiak antolatuta, Abay elkarteari bultzada eman eta, Walmaran (Etiopia), eguzki-energiatz funtzionatuko duen putzu bat sortzeko dirua biltzeko xedez

Erredakzioa URNIETA

Eguraldia lagun, makina bat herritarek hartu zuten parte, bikoteka, egun osoko iraupena eduki zuen padel-txapelketa solidarioan. Goizean goizetik izan ziren partidak herriko udal kiroldegian, eta, iluntzera bitarte

luzatu ziren norgehiagokak. Hala, finala irabazi ostean, Joseba eta Mikel Duran anaiek eskuratu zuten garaipena eta lore-sorta.

Guztia ez zen kirol-jarduera izan, ordea, Maialen eta Jone Izagirre ahizpek girotu baitzuten

larunbat goiza, Zubitxo plazan. Bertan, tokiko merkatariek egindako eskaintza zabala zegoen ipinita: orotara, ia hogeita hamar merkataritza-gunek hartu zuten parte elkartasun keinu erraldoian, nork bere eskaintza egin ez.



Joseba eta Mikel Duran anaiek irabazi zuten lehiaketa. AIURRI

Elkartasun-egun biribila



Bolondresak, paella-prestaketan. AIURRI

Paella herrikoa Boluntario-sare zabala izan zen egun osoan. Hala nola, buru-belarri aritu ziren lanean urnietarrak paella goxoa prestatu ahal izateko. Zubitxo plazan izan zen hitzordua, musikaz girotuta.



Elkartasun-saski erraldoia osatu zuten. AIURRI

Merkatarien ekarpen oparoa Harrera ezin hobea eduki zuen hitzorduak herriko merkatarien artean, izan eren, nork beretik emanda, elkartasun-saski handia osatzea lortu zuten, guztien artean.



Jone eta Maialen Izagirre ahizpak. AIURRI

Ekitaldiz beteriko goiza Musikaz bete zuten plaza Urnietako Jone eta Maialen Izagirre ahizpek. Ez da, musika-instrumentuak eskuan, kalera ateratzen diren lehen aldia, Urnietako ekimen askotan izan baitira giroa musikatzan.



Ontza elkarteko kidea hizlari, alboan elkarteko kideak, Torralboren lagunak eta txistulariak eta dantzaria zituela. AIURRI

Jonatan Torralboren omenezko plaka

Andoainen ezaguna denez, 2024ko urtarrilaren 25ean hil zen Jonatan Torralbo arrantzan munduko txapeldun izandakoa. Andoaindarra gogoan hartzeko Ontza elkarteko kideek ekitaldia antolatu zuten Unanibin,

aurreko igandean. Bertan plaka ikusgai ipini zuten. Elkarteko kide den Maite Sagaseta dantzariak ohorezko aureskua dantzatu zuen Olagain Txistulari Elkarteko kideen laguntzarekin.



Unanibin bertan zabaldu zuten Torralboren omenezko plaza. AIURRI



Jokalarien eta zaletuen babesa jaso zuten omenduek. AIURRI

Merezitako omenaldia jaso zuten ligako lehen jardunaldian

Asier Murillo, Markel Iruin eta Josu Dominguez "Txindoki" txalo artean agurtu zituzten Ubitarte zelaian

Erredakzioa ANDOAIN

Liga abiatu da Gorengo Erre- regionala Gizonezkoenn mailan, eta Euskalduna taldeak Ubitarten egin zuen debuta Usurbilen aurka. Berdinketarekin amaitu zen partida (2-2), baina arratsaldeko unerik ederrenak omenal-

di-ekitaldian iritsi ziren. Izan ere, klubak aitortza-ekitaldia antolatu zuen Euskaldunaren alde "dena" eman dutenentzat. Txalo zaparrada eta omenaldia jaso zuten Asier Murillok, Markel Iruinek eta Josu Dominguez "Txindoki"k.



Zuzendaritzako kideak eta omenduak, elkarrekin. AIURRI

Kronika

ERREMONTA JAIALDIA

24-10-11 17:00ETATIK 21:00AK ARTE
GALARRERA JAI-ALAI

SARRERA 14€

PONTADA - EDERRA
"TU UNTETIK BENERAKOAK DOAN"

Sarrerak, kalgai Kronikan eta egunero bertan Galarreran

Kronika



ikusleen artean zegoen aurkezpen-ekitaldian eta sorpresa polita prestatu zioten: Ondo merezitako omenaldia jaso zuen. AIURRI

"Guti"-k ez du gutxiago merezi

45 urte dira Leizaran taldeari eskainitakoak eta, horregatik, aurreko ostiralean klubaren omenalditxoak jaso zuen. Ezustekoa izan zen protagonistarentzat: ikusleen artean zegoen eta ez zuen horrelakorik espero

Xabier Lasa ANDOAIN

Jose Antonio Gutierrez 'Guti' eta Leizaran Eskubaloia kirol elkarte bereiztea zaila zaio bati baino gehiagori, bereziki, Andoain herrian. Kluba sortu zenetik, urrun geratzen zaigun 1919ko hartatik, lotura estua izan du 'Guti'k talde urdin-horiarekin. Sortzaileetako izan zeik taldeko ordezkaria, entrenatzailea, zuzendatzeko kidea... klubaren alor guztietan aritu da lanean. Bada lanaz gain, Gutiri aitortzen dioten doaia: klubean izan dituen ardura horien guztien gainera, adiskide galanta eta eskuzabala dela.

45 urte dira Leizaran taldeari eskainitakoak eta, horregatik, aurreko ostiralean klubaren omenalditxoak jaso zuen. Ezustekoa izan zen protagonistarentzat: ikusleen artean zegoela, ez zuelako horrelakorik espero.



"Eskerrik asko denagatik" esaldia ageri da oparitu zioten txapelan. AIURRI

Joko-zelaira jaitsiarazi zuten eta "Eskerrik asko denagatik" zioen txapela oparitu zioten. Denboraldi hasierako aurkezpen-ekitaldia, beraz, omenaldi eta gutzi osatu zen.

Taldekiedeen aitortza hori baino lehen, 2012an, Jose Antonio Gutierrezek Andoaingo Kirol Merezimendu saria jaso zuen Andoaingo Udalaren eta herriko kirol taldeen eskutik.

Denboraldiaren aurkezpen-ekitaldia



Senior mailako taldekideak. AIURRI

Ibilbide osoa egiteko kluba Txikitari taldean murgildu eta senior mailarainoko ibilbidea egin daiteke Leizaran taldean. Allurraldeko ekitaldian hori frogatzeko aukera izan zen, hamabost talde aurkeztu zituztelako.



Prestatzaileen eta laguntzaileen lana ezinbestekoa da. AIURRI

Talde lana ezinbestekoa da Ehunka kirolari martxan jarri ahal izateko lan handia egin behar da eta, bereziki, laguntzaile ugari. Askoren lanari esker iritsi da gaurdaino Leizaran eskubaloia taldea. Haien lana aitortzea garrantzitsua da.



Haurrak, gaztetxoak eta helduak elkartu ziren aurkezpen-ekitaldian. AIURRI

Harrobia lantzen Leizaran eskubaloia taldeak aro gozoa du senior mailako bi taldeak Euskal Ligan ariko direlako. Baina ez horregatik bakarrik. Izan ere, dozenaka jokalaririk dituzte beheko mailatan trebatzen. Harrobia lantzea etorkizuna irabaztea da.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ZIKLOA

URNIETA Jabekuntza Eskola

Parte hartu nahi duten emakumeek izena emateko aukera dute Bertan bulegoan edo webgunean.

Izen-ematea: Irailak 17-27.

URNIETA Mendi Tour

Mendi Film jaialdiaren onena.

19:00, Sarobe

Irailak 26, osteguna.

EUSKARA

ESKUALDEA Matrikulazioa

2024-2025. ikasturterako aukera zabalik da AEK-ko euskaltegietan. *Matrikulazio epea zabalik.*

ERAKUSKETA

ANDOAIN "Ño!"

Maitane Gartziandia ilustratzaileak eta Miren Artetxe eta Eli Pagola bertsolariek, bertso-saio baten bueltan gerta daitezkeen hamar eszena jaso dituzte.

Azken eguna: Urriak 17.

JAIK

URNIETA Sanmielak

Mielaren jaitsiera. Egitarau osoa astekariko 8-9. orrialdeetan eta Aiurri.eus gunean. Jaiak ofizialki ostiralean hasiko badira ere, badira hainbat ekitaldi ostegunean.

19:30, San Juan plaza.

Irailak 27, ostirala.



Aitor Ugalde hizlari Urnietako kiroldegian, artxiboko irudian. AIURRI

ANDOAIN Kirola eta elikadura, hizpide

Zumeatarra kirol elkarteak mahai-ingurua antolatu du, Andoaingo Bastero Kulturgunean ekitaldi-aretoan. Irailaren 27an izango da, arratsaldeko 19:00tan hasita. Aitor Alberdi prestatzailea, Jokin Lizeaga korrikalaria, Aitor

Ugalde nutrizionista eta Naroa Furundarena kirolaria hizlari ariko dira. Bertaratzen diren zalantzak eta galderak argitzeko prest izango dira..

19:00, Bastero Kulturgunea.

Irailak 27, ostirala.

ZINEMA

ANDOAIN Programazioa

Asteburuan ez da zinema emanalditik izango.

Irailak 28-30.

BILKURA

ANDOAIN Elkarretaratzea

Etxeretek deituta.

19:00, Zumea plaza.

Irailak 27, ostirala.

KONTZERTUA

ANDOAIN Rock gaua

Black Bacon eta Shock taldeak.

22:00, Gaztetxea.

Irailak 27, ostirala.

IBILBIDE-GIDATUA

ANDOAIN Ziako erreka

URA agentziaren eskutik.

18:00, Martin Ugalde parkea.

Irailak 30, astelehena.



Gorka Urbizu. TTAP

Gorka Urbizu, Gabonetan Bastero Kulturgunean

Kultura Sailak udazkeneko programazioaren berri eman du. Urbizu 'Gabon giroan' zikloan ariko da

Erredakzioa ANDOAIN

Gorka Urbizu eta disko berriena Andoainen bertan entzuteko aukera izango da abenduaren 27an, 'Gabon giroan' zikloan. Sarrerak azaroan erosi ahal izango dira. Kultur alorreko artista handienetakoa, beraz, gure artean izango da. Itzal handiko artistez gain, herriko eragileek tarte berezia izango dutela aurreratu du Marta Lasa zinegotziak.

Bien bitartean, urriko eta azaroko programazioaren sarreren salmenta abiarazi dute. Lehenik, beti bezala, bazkideek. Eta, hilaren 30etik aurrera, bazkide ez direnek.

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN

Amalur Jauregi Hidalgo

Zorionak Amalur! 6 urte jadanik! Mila muxu etxekoan partez! Asko maite zaitugu!



ANDOAIN

Laida Arévalo García

Urriaren 16an 6 urte beteko ditu. Bere ahizpa eta etxekoan partez txokolatezko muxu erraldoi bat.



ANDOAIN

Xabat eta Galder

Zorionak bikote! Aurten 11, segi orain bezain jator. Muxuak etxekoan partez.



ANDOAIN

Zorionak Éire!

Irailaren 27an gure poppolintxok 2 urte beteko ditu, ondo-ondo ospatu! Muxu handi bat etxekoan partez!

ZINEMA

ANDOAIN, BASTERO

Asteburu honetan ez da zinema emanaldirik izango.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa, Bastero Kulturgunean

'Anatx' kantari ariko da Andoainen, datorren igandean. Bezperan, bestalde, Unai Gaztelumendi, Hondarribian

Erredakzioa URNIETA

Dena dago prest Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 2024 hasteko. Txapelketari buruzko informazio osoa Bertsozale.eus gunean aurkitu daiteke, eta sarrerak dagoeneko bertsoa-

rrierak.eus atarian eros daitezke. Urnietako bi bertsolari murgilduko dira lehiaketan, hilabete honetan bertan: alde batetik, irailaren 28an abestuko du Urnietan bizi den Unai Gaztelumendi Arandiak. Hondarri-

bian izango da hitzordua, Itsas Etxea auditorioan. Beste alde batetik, biharamunean, ariketa berdinean ariko da Andoni Mujika Izagirre "Anatx" urnietarra, etxetik gertu: Andoaingo Bastero Kulturgunean abestuko du. Biak ala biak arratsaldeko 17:00etan hasiko dira.

Aurten bertso-eskolak hartuko dituzte gogoan, 50 urte bete baitira Almen bertso-eskola abiatu zenetik. Egun, bertso-eskolarik gabe nekez uler liteke bertsolaritza.


andoaINDARRA
euskaraz

Andoaingo euskera, bihotzetik kalera!!

EGOITZA BERRIA EROSTEKO DIRU-BILKETA

Bete dezagun itsulapikoa!!



Egizu zure ekarpena Rural Kutxako
ES70 3008 0159 8152 7622 5926 zenbakiko
kontu korrontean sarrera eginez



50.000 € biltzea 2024ko helburua

**2024-09-25era bitartean
bildurikoa: 2.225,90 €**

Egigun denon artean!!



Hurrengo hitzorduak:
2024-10-31:
2024-11-09:
2024-12-05:

Gau-beltza
Gastronomia eta artisautza azoka eta
TONBOLA handia
Andoaindarren jaia Basteron